

AIAKO ZUDUGARAI 22 HJEaren PLAN PARTZIALAREN IRISMEN DOKUMENTUA

1. AURREKARIAK

2025eko urtarrilaren 23ko idazki bidez, Aiako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiari eskatu zion Aiako Zudugarai 22 HJEaren plan partzialaren ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura abian jartzeko. Ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 29. artikulutik 32.era bitartekoetan dago araututa prozedura hori. Eskaerarekin batera, ondore horietarako, ingurumen azterketa estrategikoa erantsi zen.

Bidalitako agiriak aztertu ostean, 2025eko urtarrilaren 27an, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiak Aiako Udalari jakinarazi zion, plan partziala lehenengoz aurkeztu zenean 2012ko azaroaren 6ko Ebazpenean Departamentuak eskainitako argudioei eutsiz, beharrezkotzat jotzen zela plan partzial hori ingurumen ebaluazio estrategiko arruntaren prozeduraren bidez izapidetzea, eta ez Udalak eskatutako prozedura sinplifikatuaren bidez, eremuaren erabilera industrien antolamendua eta sare eta azpiegituren diseinua zehazteko planaren garrantzia eta egokitasuna ikusita, eta baita eragindako zenbait ingurumen baliabideren balio eta zaurgarritasun handiagatik ere. Ondorioz, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 18. artikuluan xedatutakoa betez, hasierako onespena eman aurretik, Udalak dokumentazio hau aurkeztu behar zion Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiari: plan partzialaren zirriborroa edo hasierako dokumentua eta hasierako dokumentu estrategiko bat, 21/2013 Legearen 18.1 artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8.1 eta 8.2 artikuluetan adierazitako edukiak barne zituen.

Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak 2025eko urtarrilaren 29an egindako errekerimenduaren ondotik, Aiako Udalak dokumentazio hau aurkeztu zuen: memoria, informazio eta antolamendu planoak eta plan partziala arautzen zuten ordenantzak, ingurumen azterketa estrategikoarekin batera.

Ondorioz, eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko 10/2021 Legearen 68. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, ingurumen alderdiak planen eta programen prestaketan integratzeko xedez, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiak, ingurumen organoa den heinean, irismen dokumentu bat egingo du ingurumen azterketa estrategikoak izan behar duen zabaltasuna, xehetasun maila eta zehaztasun maila azaltzeko, eragindako administrazioei eta herritar interesdunei kontsulta egin ondoren.

Hortaz, 10/2021 Legearen 62. artikuluan eta Jasangarritasun Departamentuaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko urriaren 1eko 29/2024 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza Nagusi honek Aiako Zudugarai 22 HJEaren plan partzialaren irismen dokumentu hau eman du.

2. AIAKO ZUDUGARAI 22 HJEaren PLAN PARTZIALAREN HELBURUAK, ANTOLAMENDU AUKERAK ETA AMAIERAKO PROPOSMENAREN AZALPENA

Zudugarai 22 HJE hiri lurzoru industriala da eta sei partikularren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren jabetzakoa da. Momentu honetan, zenbait enpresak okupatzen dituzte eremua osatzen dituzten partzelak. Eremuaren azalera plataforma horizontal batean kokatuta dago, GI-2631 errepidearen alde bietan, eta desnibel handiak ditu inguruan; ipar-ekialdean, hegoaldean eta mendebaldean goragune txikiak ditu, nolabaiteko interes hidrogeologikoa duten eremu behehutsuagoen artean. Eremua modu kaotikoan garatu da agregakinen instalazio baten inguruan, eta horrek degradazio handia eragin du: pabiloi abandonatuak, hondakinak pilatzen diren eremuak, etab.

Plan partzialaren helburua 136.523,31 m²-ko azalera duen eremu horren hirigintza antolamenduaren ezaugarriak zehaztea da, eta eremua berroneratzen laguntzea, partzialki urbanizatuta dagoen eremu batean aprobetxamendu industrial planteatuz. Proposamenak 2009ko ekainaren 25ean argitaratu zen Aiako arau subsidiarioen testu bateginean dauka jatorria.

Hauek dira “Zudugarai” 22 HJEaren garapenean planteatu diren hirigintza helburuak:

- Hormigones Azkune eta beste enpresa batzuek “Zudugarai” 22 HJE eremuan okupatzen duten uneko lurzorua antolatzea.
- Jarduera ekonomikoetarako lurzoru eskaintza berria sortzea Aian, industrialde izaerarekin, enpresak erakartzeko politikarako instrumentu egokia baita.
- Hormigones Azkune enpresaren kokaleku berria baimentzea, egungo eta etorkizuneko beharrei erantzuteko toki nahikoa duena, aplikatzekoa den araudi espezifikoaren arabera.

Ingurumen azterketa estrategikoan, 3 antolamendu aukera planteatzen dira:

- *0 aukera edo egungo egoera mantentzearena.* Gaur egun, Hormigones Azkuneren instalazioak daude lurzoru horretan. Enpresa modu desordenatuan garatuz joan da eremuan, ingurumen eragin nabarmenekin. Plan partzialarekin konpondu nahi dena, hain zuzen, kaos hori eta ingurumenaren narriadura dira; beraz, ezin da aukera hori hartu, gaur egun narriatuta dagoen eremu hori berroneratzea galaziko luke eta.
- *A. aukera.* 2011n proposatu zen plan partzialaren antolamendua da. Ingurumen eta Obra Hidraulikoen Zuzendaritzak –gaur egun Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza– horren inguruko 38-R.085-MA/12 ebazpena eman zuen 2012ko azaroaren 6an. Antolamendu horrek eraikin modularren eskari industrialari erantzuten zion, bai oinplanoan zein altxaeran, baina ez dator bat egungo betekizunekin. Gaur egun, partzela handiagoak eta altueran ez hain zatikatuak bilatzen dira. Aukera horretan, definitutako partzela ugarietako bakoitzerraino iristen ziren bideak, aparkaleku gehienak bide publikoan zeuden eta partzela garbi eraikigarriak definitzen ziren. Horrek guztiak eremuaren urbanizazio intentsiboa eskatzen zuen.
- *B aukera.* Plan partzialaren hirigintza dokumentu berrian proposatu dena da. Gaur egun eskatzen den tipologia industrialarekin bat dator eta, aurkeztu diren dokumentuetan ikusten denez, antolamenduan kontuan hartu dira Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritzaren 2012ko azaroaren 6ko 38-R.085-MA/12 ebazpenari erantsitako erreferentziako dokumentuan azpimarratu ziren ingurumen elementuak. Partzela gordinak zehazten dira, eta partzeletara sartzeko eta bide publikoan gutxieneko aparkalekuak ahalbidetzeko behar-beharrezko urbanizazioa aurreikusten da soilik. Gainerako aparkalekuak partzela bakoitzaren barruan egingo dira, partzela bakoitzaren ezarpen beharren arabera.

Hirigintzaren ikuspuntutik, A eta B aukerak parekoak dira; izan ere, Aiako 2009ko arau subsidiarioen testu bateginean xedatutako eraikuntza parametroak jarraitzen dituzte.

Lur mugimenduari dagokionez, ingurumen azterketa estrategikoaren arabera, bi aukerak antzekoak dira lurren konpentsazioaren aldetik. Soberakinak aurreikusten dira eremuko orografia dela eta, baina antolamendu proposamena planimetriaren eta altimetriaren aldetik planteatzen da, ahalik eta konpentsazio handiena lortzeko. Bestalde, ingurumen aldagaiei dagokienez, B aukerak eragin txikiagoa dauka antzeman diren eremu karstikoen gainean, eta espazioa hobe banatzen du dolinei eta horiekin lotutako erregimen hidraulikoari dagokienez. Gainerako ingurumen aldagaietarako, tipologia eta magnitude bereko inpaktuak dakartza.

Ondorioz, ingurumen azterketa estrategikoak ondorioztatzen du hiru aukeretatik onena B aukera dela, eta hori garatu da orain aurkeztu den plan partzialean.

Hona hemen aurreikusitako antolamenduaren ezaugarri nagusiak:



- Antolamendutik kanpo uzten dira eremuko 6 jabe partikularrekin lotutako zenbait eraikin.
- *Partzela industrialak.* 4 partzela antolatzen dira, denak jarduera ekonomikoetarako, uneko beste 2 partzelarekin batera, eta eremuko ipar-ekialdean finkatzen dira (pentsu enpresa). Hauek dira partzela berrien azalera, hurrenez hurren: 8.8351 m², 17.601,16 m², 36.912,54 m² eta 33.441,74 m².
- *Zerbitzuen zuzkidura ekipamenduko partzela.* 5.257,06 m²-ko partzela bat definitzen da, 4.320 m²-ko gehieneko sabai azalera eraikigarriarekin. Partzela industrial finkatuen alboan dago.
- *Jabari eta erabilera publikoko espazio libreen tokiko sistema.* Bi zatitan banatzen da, antolamendu eremuko iparraldean eta hegoaldean, 4.925,09 m² eta 6.208,32 m²-ko azalarekin, hurrenez hurren. Hegoaldean, GI-2631 errepidearen bestaldean, 1.885,09 m²-ko azalera bat dago, *jabari eta erabilera publikoko hondar espazio libreen tokiko sistemaren* baitakoa.
- *Bide sarea, aparkalekuak eta oinezko ibilbideak.* Eremuak N-634 errepidetik (Donostia-Bilbo) dauka sarbide nagusia, Orioko Gainaren parean. Puntu horretatik irteten da GI-2631 errepidea (Aia-Villabona), "Zudugarai" 22 HJE erabat zeharkatzen duena eta 1. Bidea izena hartuko duena. Bide horrek apur bat erregulatuko du uneko GI-2631 errepidea, eta eremuko hegoalderaino iritsiko da. Bidearen erdialdean biribilgune bat aurreikusi da; hor elkartuko dira partzela industrialetara doazen 2. eta 3. bideak eta GI-2631 errepidea. Bere aldetik, 2. bidea zerbitzuen zuzkidura ekipamendurako partzela ondotik abiatuko da, 1. bidearekin elkartu arte, GI-2631 errepideko biribilgune berrian. 3. eta 4. partzela industrialei emango die zerbitzua, horien luzera osoan, eta 5. partzelari hasieran. 3. bideari dagokionez, 1. eta 2. partzelei emango die zerbitzua eta Zarautzetik datorren bidearekin konektatuko du biribilgunea, zerrategiari zerbitzua ematen diona, alegia. 667 aparkaleku aurreikusi dira.
- *Ur hornidurarako, drainatzeko eta hondakin uren saneamendurako sareak.*
 - *Hornidura:* industriadetik hurbil dagoen sare orokorretik egingo da.
 - *Euri urak biltzea:* bide berrien eta eremu libre publikoen azpian kokatuko diren kolektoreen bidez egitea aurreikusi da; horrela, areka eta hustubideen sistema baten bitartez, urak iparraldeko eta hegoaldeko dolinetarantz bideratuko dira, hor isurtzeko (Altzerri hustubidea). Beren aldetik, partzela bakoitzak euri urak biltzeko barne sare bat eraiki beharko du bere kontura, eta sare orokorrerako kutxatila baten bidezko konexioa egin.
 - *Hondakin uren saneamendu sarea:* ur beltzak eta industrialak biltzeko sare banatzaile bat aurreikusi da. Ur industrialak tratatu egingo dira, egokia bada, saneamendu sare orokorrera isuri aurretik. Saneamendu sare orokorra araztegi bateraino joango da. *O.10.2 Zerbitzu azpiegiturak. Oinplano orokorra (II).* Saneamendu sarea eta drainatzea planoaren arabera, araztegia ipar-ekialdean dagoen espazio librean kokatuko da, aparkalekuen ondoan, eta eremuko iparraldean dagoen dolinen gunean isuriko ditu urak.

Plan partzialaren antolamendu planoetan sare horien trazadura eskema bat aurkezten da, baina, hirigintza dokumentuaren arabera, urbanizazio proiektuan zehaztuko dira sareen ezaugarriak, neurriak eta trazadura.

3. EGINDAKO GALDERAK

Aiako Udalarari eskatu zitzaion dokumentazioa aztertu ondoren, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiak kontsulta izapidea gauzatu du eragindako administrazioekin eta herritar interesdunekin, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 68. artikuluan xedatutakoarekin bat. Fase horretan, erakunde eta entitate hauei egin zitzairen kontsulta:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneke Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako eta Lurralde Orekeko Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoen Zuzendaritza Nagusia.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Garapen eta Industria Administrazioeko Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.
- IHOBE.
- EEE (Energiaren Euskadiko Erakundea)
- Zarauzko Udala.
- Uraren Euskal Agentzia (URA).
- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa.
- Gipuzkoako Ur Kontsultazioa
- EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna).
- ENBA (Euskal Nekazarien Batasuna).
- Urola Kostako Mankomunitatea.
- Urkome.
- Aranzadi Zientzia Elkartea.
- Eguzki talde ekologista.
- Ekologistak Martxan Gipuzkoa talde ekologista.
- Landarlan Ingurumen Elkartea.
- Haritzalde Naturzaleen Elkartea.
- Itsas Enara Ornitologia Elkartea.

Halaber, hasierako dokumentua eskuragarri egon da GFAREN Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzaren Interneteko atarian (www.gipuzkoaingurumena.eus), herritarrek egokitzen jotzen zituzten ingurumen ekarpenak egiteko.

Erantzunak emateko epea agortuta, hauek jaso dira:



- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak jakinarazi du planak zoru urbanizagarria hartzen duela; beraz, Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren (LPS) ordenamendu eremutik kanpo gelditzen da. Halere, barne dituen nekazaritza erabilerak ikusita (larreak eta basozaintzakoak), plan partzialaren garapenak nekazaritza sektorean izango duen eragina ebaluatzea gomendatzen da, bai eta aurreikusitako kotak lortzeko egingo diren lur mugimenduak ere. Horretarako, kontuan hartu beharko litzateke eragina jasan dezaketen nekazaritza ustategien gaineko eragina, eta oinarritzat hartu beharko litzateke Nekazaritza eta Basozaintzako LPSan ezarritakoa, *planak aplikatzeak eta obrak edo jarduerak egiteak nekazaritza sektorean duen eraginaren ebaluazioari* dagokionez. Ebaluazio horren emaitzen arabera, prebentzio, zuzenketa eta konpentsazio neurriak hartzea gomendatzen da, hala badagokio.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Oreka Berdearen Zuzendaritzak jakinarazi duenez, Aiako arau subsidiarioen testu bategina nekazaritza eta basozaintzako LPSa baino lehenagokoa denez eta, bertan, Zudugarai 22 HJE industria erabilerarako lurzoru urbanizagarri gisa sailkatuta dagoenez, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren antolamendu eremutik kanpo geratzen da, eta, beraz, ez dagokio txostena egitea.
- Uraren Euskal Agentzia (URA). Kontsultari erantzunez, planaren eremuaren ezaugarrien, aurkeztutako antolamendu proposamenaren eta hasierako dokumentu estrategikoan (HDE) jasotako informazioaren azterketa zabala egin du. Uraren Euskal Agentziak ondorioztatu du planaren memoriak ez duela informazio nahikorik ematen sistema hidrogeologikoan izan daitezkeen eraginak baloratzeko, eta HDEak arinegi eta zehaztasun gutxirekin aztertzen dituela planak izan ditzakeen ingurumen ondorioak, eta, batzuetan, emandako informazioa kontraesankorra dela. Hortaz, beharrezkotzat jotzen du:
 - Eremuaren funtzionamendu hidrogeologikoaren azterketa egitea.
 - Mantendu nahi diren instalazioen (hormigoien instalazioa) egungo inpaktuak baloratzea eta hormigoi instalazio horren etorkizuneko kokalekua zehaztea, bai eta jarduera horren prozesuetako urei eman nahi zaizkien tratamendua eta erabilerak aztertzea ere.
 - Altxerriko hustubidea babesteko perimetro bat definitzea eta planaren antolamenduan sartzeara, lursail naturala aldatuko lukeen esku hartze oro saihesteko.
 - 2. partzela eraldatzeko esku hartzea mugatu egin beharko da, egungo erabilerek dagoeneko urbanizatuta eta narriatuta duten azalerara.
 - Ubegun industrialdean dagoen saneamendu sistemarekiko konexioaren bideragarritasuna aztertzea.
 - Kutsatuta egon daitezkeen euri urei administrazio hidraulikoaren isurtzeko baimen prozedura aplikatzea.
 - Behar-beharrezkoa den azaleretara mugatzea zoladura iragazgaitza, eta drainatze jasangarriko hiri sistemak sartzeko aukera aztertzea.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak txosten teknikoa egin du antolamenduaren eremuan dauden babes zibileko arrisku garrantzitsueni buruz. Horien artean, baso suteen arriskuari buruzko informazioa ematen da; izan ere, jarduketaren xede den eremuan eta ingurune hurbilean, txikia edo oso handia izan daiteke arriskua, eremuaren arabera. Bestalde, jakinarazten da aztergai den eremuko prezipitazio isomaximoak 250 mm/egun eta 275 mm/egun artekoak direla 500 urteko errepikatze denborarako, eta hori kontuan hartu beharko dela egin beharreko obretatik erator daitezkeen drainatze obrak diseinatze. Arrisku sismikoari dagokionez, Aia V. intentsitate eremuan dago, eta, beraz, ez du larrialdi sismikoko planik egin behar. Hala ere, eraikuntza berrietan sismoerresistentea den Eraikuntzari buruzko Araua hartuko da kontuan: zati orokorra eta eraikuntza (NCSR-02), 997/2002 Errege Dekretuak onartu zuena. Bestalde, salgai arriskutsuen



garraioaren arriskuari dagokionez, eraginpeko bidea N-634 errepidea da, eta horri lotutako arriskua oso txikia da. Azkenik, Aiako udalerrian Seveso III Araudiari lotutako establezimendurik ez dagoela azaldu du.

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak jakinarazi du ez dagoela kultura ondareko elementu babesturik (arkitektonikoa edo arkeologikoa). Dena den, gehitu dute, beren datu basean Orioko Gaina I kanpamentuaren erreferentzia dago, eremuaren mugaketaren barruan dagoena eta ondare interesa duena. Gainera, eremuaren inguruan Altxerriko haitzuloa dago, izaera nazionaleko monumentu historiko-artistikoak izendatzeko uztailaren 17ko 265/1984 Dekretuaren bidez monumentu historiko-artistiko nazional deklaratu zena (1984/08/04ko 132. EHAA). Ondorioz, esku hartzeak ezin izango du elementua oztopatu, ez eta haren babes eremua ere. Kontsultari emandako erantzunak ondorioztatzen duenez, ingurumen dokumentuak adierazitako elementuak aipatu beharko lituzke, eta, hala badagokio, dagozkien neurriak hartu.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazi du proiektuaren eremuan ez dela eraginik hauteman kultura ondarean.

Irismen dokumentu hau egin ondoren erantzunik jasoz gero, Aiako Udalari bidaliko zaio ahalik eta lasterren, kontuan har dadin Aiako Zudugarai 22 HJEaren plan partziala eta ingurumen azterketa estrategikoa egitean.

4. INGURUMEN HELBURU ESTRATEGIKOAK, JASANGARRITASUN IRIZPIDEAK ETA ARAUDI ITURRIAK

Aiako Zudugarai 22 HJEaren plan partzialak ezartzen dituen ingurumen helburuen xedea izan behar da antolatutako eremuan dauden eta aurreikusita dauden eraikinen paisaia inpaktua ahalik eta gehien murriztea, bai eta **industria jarduerak** inguruko ingurumen kalitatean eta, bereziki, Altxerriko sistema karstikoan eta hari lotutako balioetan izango dituen ondorio kaltegarriak arintzea ere.

Gainera, plan partzialaren formulazioan, ingurumen jasangarritasuneko irizpide hauek hartu behar dira kontuan:

- *Antolamendu eta plangintza globalean*
 - Ingurumen kalteak prebenitzeari lehentasuna ematea, kalte horiek zuzendu eta konpentsatzearen aurretik. Horretarako, plan partzialaren formulazioan ingurumen alderdiak behar bezala kontuan hartuko dira, eta ingurumena hobetzeko proiektuak eta jarduketak planteatu eta txertatuko dira.
 - Erantzun beharreko premiak zorrotasunez aztertzea, aurreikusitako garapenen gehiegizko dimentsionatzea saihestuz.
 - Eskura dauden baliabide hidrikoak eta lurraldearen karga ahalmena kontuan hartzea aurreikusitako garapenen bolumena ezartzerakoan.
 - Lurzoru kontsumoa minimizatzea, batez ere urbanizatu gabea, eta, nolanahi ere, lehentasuna ematea dagoeneko artifizializatuta dauden lurzoruen erabilerari eta kutsatutako lurzoruak berreskuratzeari.
 - Intereseko tokiko landaredia babesten dela ziurtatzea.



- Ur baliabideak eta ur ingurunea –lurpeko ur kontinentalak– babestea, zaintzea eta lehengoratztea, eta Uraren Esparru Zuzentarauaren helburuak erdiesteko ahalegintzea. Ildo horretan, egungo eta etorkizuneko isurketen tratamendu egokia bermatuko da.
- Plan partziala ingurumena hobetzeko aukeratzat hartzea, eta ez soilik ingurumen inpaktuen iturritzat. Hortaz, plan partziala balia daiteke:
 - Industria eremua antolatzeke eta, horri esker, zaratak, kutsatzaileen igorpenak eta abarrek ingurunean eragiten dituzten ingurumen inpaktuak murrizteko.
 - Industriak orain arte sortu dituen ingurumen inpaktuak konpentsatzeko, espazioen edo elementuen ingurumen hobekuntzako neurri zehatzak gauzatuz, nahiz eta espazio edo elementu horiek plan partzialaren mende ez egon.
- *Antolamendu eta plangintza xehatuan*
 - Lehen faseetatik Altxerriko paisaia eta sistema karstikoa integratzea, aukerak hautatzean kontuan hartu beharreko funtsezko elementuak baitira.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko hots kutsadurari buruzko 213/2012 Dekretuan eta, Estatuko legerian, 1367/2007 Errege Dekretuan ezarritako kalitate akustikoko helburuak eta immisio mugak betetzea erraztuko duen antolamendua ezartzea.
 - Elementu naturalak integratzea (tokiko landaredia...) eta ehuna iragazkor bihurtuko duten korridoreak sortzea, alboko eremuak lotuz, bai eta hiri zuhaitzak sistematikoki erabiltzea ere.
 - Eremuaren zerbitzurako hirugarren sektoreko ekipamenduak aurreikustea (tabernak, jatetxeak, oinarriko zerbitzuak, etab.), mugikortasun premiak murrizteko.
 - Hondakinak tratatzeko guneak aurreikustea: arazketa sistemak, hondakinak transferitzeko zentroak, etab.
 - Jasangarritasun energetikoaren ondoriozko betekizunak txertatzea antolamenduan eta eraikuntzan.
- *Urbanizazio prozesuetan*
 - Kutsadura arazorik ez badago, iragazgaiztutako azalera murriztea, euri uraren iragazketa naturala errazteko, batez ere aparkaleku plataforma handietan.
 - Lur soberakinak, landare lurra eta eraiketen hondarrak behar bezala kudeatzea, berrerabili ahal izateko.
 - Material birziklatuak edo berrerabiliak baliatzea.
 - Sareen diseinuan gehiegizko dimentsionamendua saihestea.
 - Berdeguneen tratamendu jasangarria ziurtatzea.
 - Industriadeko argiztapenean energia aurrezte, efizientzia sustatzea eta argi kutsaduraren ahalik eta gehien murriztea.

- *Industrialdearen kudeaketan*

- Garraio publikoaren edo mugikortasun kolektiboko beste sistema batzuen bidez eremurako zerbitzua bermatzea.
- Ingurumen kudeaketa zentralizatua: enpresak ingurumen irizpideen arabera hautatzea (ekoizpena, ingurumen kudeaketa, etab.), elementu komunen kudeaketa zentralizatua, mugikortasunaren kudeaketa, irizpide ekosistemikoak dituzten lankidetzak sistemak ezartzea: kogenerazio sistemak, enpresa batzuek beste batzuen azpi produktuak erabiltzea beren bizi zikloak ixteko aukera emanez, etab.

Bestalde, Aiako Zudugarai 22 HJEaren plan partziala egitean, honako arau eta dokumentu hauetan jasotako jasangarritasun irizpideak eta printzipioak hartuko dira kontuan:

- Nazio Batuen 2030 Agenda.
 - Europar Batasunaren ingurumenaren arloko VIII. Ekintza Programa Orokorra 2030era arte.
 - Europako Itun Berdea.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko 2030erako Ingurumen Esparru Programa.
 - Euskadiko 2030erako Biodibertsitate Estrategia.
 - 2050erako Klima Aldaketaren Euskadiko Estrategia.
 - Euskadiko Ekonomia Zirkularraren Estrategia 2030.
 - 2030erako Euskadiko Energia Estrategia.
 - Klima aldaketaren aurkako 2050erako Gipuzkoako Estrategia.
 - Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testuategina onartzen duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 3. eta 20. artikulua.
 - Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 3. artikulua.
 - Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren maiatzaren 20ko 7/2021 Legearen 2. artikulua.
 - Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 2. artikulua eta Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 3. artikulua.
 - Urari buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 3. artikulua.
 - Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 1. eta 2. artikulua.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gaineko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuaren 2. artikulua.
- Azkenik, irismen dokumentu hau egiteko kontuan hartu diren eta Aiako Zudugarai 22 HJEaren plan partziala egiteko kontuan hartu behar diren ingurumen arau nagusiak honako hauek dira:

-

Europakoa

- Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentaraua, 1992ko maiatzaren 21ekoa, habitat naturala eta basa fauna eta flora zaintzeko buruzkoa.
- 2000/60/EE Zuzentaraua, ur politikaren esparruan Erkidegoko esparrua ezartzen duena.
- 2002/49/EE Zuzentaraua, zaratari buruzkoa.

Estatukoa

- 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa.
- 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duena.
- 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa.
- 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, zaratari buruzkoa, eta 1367/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duena, zonakatzeko akustikoari, kalitate helburuei eta emisio akustikoei dagokienez.
- 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Uren Legearen testu bategina eta hura garatzeko erregelamenduak onartzen dituena.
- 35/2023 Errege Dekretua, Kantauriko Demarkazio Hidrografikoaren 2022-2027 Plan Hidrologikoa onartzen duena.
- 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko.

Autonomia erkidegokoa

- 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena.
- Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) eremu funtzionaleko LPPa, 32/2006 Dekretuaren eta ondorengo bi aldaketen bidez behin betiko onartua.
- 43/2007 Dekretuaren bidez behin betiko onartutako Itsasertza Babestu eta Antolatze LPSa. Une honetan, berrikusteko prozesuan dago, klima aldaketaren erronkara egokitze.
- 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzkoa.
- 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena.
- 4/2015 Legea, lurzoru kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko, eta hura garatzeko dekretua.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots kutsadurari buruzkoa.
- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa, eta ondorengo aldaketak.
- 9/2021 Legea, azaroaren 25ekoa, Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko buruzkoa.
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena.

- 265/1984 Dekretua, uztailaren 17koa, izaera nazionaleko monumentu historiko artistikoak deklaratzeko dituenak.

5. AIAKO ZUDUGARAI 22 HJEaren PLAN PARTZIALAREN EREMUA ANTOLATZEAN KONTUAN HARTU BEHARREKO INGURUMEN ALDERDIAK.

Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza Nagusi honetan dagoen informazio bibliografiko eta kartografikoa kontsultatu ondoren eta beste administrazio batzuetatik jasotako erantzunak eta bidali den ingurumen dokumentazioan ageri den informazioa kontuan hartuta, jarraian adierazi diren baliabide kalteberak eta/edo baliotsuak identifikatu dira planaren aplikazio eremuan; beraz, arreta berezia jarri beharko zaie plan partziala eta bere ingurumen azterketa estrategikoa idazterakoan. Identifikatu den elementu bakoitzerako babes helburua definitu da.

- a) **Batasunaren intereseko habitatak:** berrikuspenaren eraginpeko eremuetan, *altitude baxuko sega-belardi txiroak (6510)* Batasunaren intereseko habitata dago. Habitat horren gaineko eragina mugatuko da, eta, ahal den neurrian, lurzoru urbanizaezinaren artifizializazioa murriztuko da.
- b) **Intereseko landaredia (hariztia/baso mistoa).** 22. HJEan eta inguruetan harizti azidofilo-baso mistoko formazioak daude, eta horiek babestea interesgarritzat jotzen da, hurrengo puntuan azaltzen den moduan.
- c) **Korridore ekologikoak.** Aiako arau subsidiarioen ingurumen inpaktuaren baterako ebaluazio azterketak tokiko korridore ekologiko bat definitu zuen Inurritzako biotopoaren eta Pagoetako parke naturalaren artean. Korridore hori lurzoru urbanizaezinaren antolamenduan ezarritako baldintzatzaile gainjarrien parte da, eta plan partzialaren eremuaren ekialdeko muga dago. Era berean, plan partzialaren eremuaren iparraldean dagoen espazio publikoa Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatu duen azpiegitura berdearen sareko eremu baten barruan dago; zehazki, Santa Barbarako eta Inurritzako KBEak lotzea ahalbidetzen duen GAB-UK-05 eremuan. Zudugarai 22 HJEa inguratzen duten azpiegitura berdeko elementuen mantentzea eta funtzionaltasuna errazteko, ahalik eta gehien murriztu beharko litzateke lehendik dagoen harizti-baso mistoaren tokiko landarediaren gaineko eragina plan partziala garatzerakoan eta/edo azkenean kenduko den tokiko landarediaren azalera konpentsatu beharko litzateke, tokiko zuhaitz eta zuhaixka espezieak landatuz beste eremu narriatu batzuetan, ahal dela Zudugarai 22 HJEaren inguruan.
- d) **Fauna.** Plan partzialaren eremua Schreiber muskerraren (*Lacerta schreiberii*) lehentasunezko banaketa eremu bat da. Espezie hori Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan sartuta dago, interes bereziko kategorian. Ondorioz, habitata ez suntsitzeko eta/edo ez kutsatzeko ahalegina egingo da, babesleku izan baitaiteke: baso heze hostoerorkorrak, hala nola haritzak eta ibai eta arroi ertzak. Halaber, orrialde honen oinean aipatutako lan zientifikoek¹ agerian utzi dutenez, kontuan hartu behar da Altxerriko sistema karstikoari lotutako fauna troglomenaren eta troglomenaren balio natural handia, bai eta haren akuiferoaren eta 22. HJEan dagoen Altxerriko hustubidearen arteko lotura ere. Beraz, behar diren babes eta zuzenketa neurriak hartu beharko dira, plan partzialaren eremutik datozen euri urek eta hondakin urek lurpeko ekosistema horretan inpaktu negatibo nabarmenik izan ez dezaten.
- e) **Hidrogeologia.** Plan partzialaren xede den hirigintza eremua Kantauri Ekialdeko Demarkazioko Zumaia-lrungo lurpeko ur masan dago. Dolinak daude ipar-mendebaldean eta hego-mendebaldean, plan partzialaren eremua kokatuta dagoen eremu karstikoari lotuta.

▪ 1 *Conservación de la fauna troglomena de Gipuzkoa: Biotopos Subterráneos Protegidos. Carlos Galán. 2006ko urria eta Descripción del Sistema de la Cueva de Altxerri (Orio, País Vasco), plano digital georreferenciado y notas sobre su fauna hipogea. Carlos Galán. 2011ko urtarrila.*

Dolina edo hustubide horiek birkarga eremuak dira; izan ere, lurrazaletik igarotzen diren jariatzeko urak eta beste ur fluxu batzuk kanalizatzen dituzte. Plan bereziaren eremuan dauden materialen ezaugarri hidrogeologikoak direla eta, ia ez dago lurrazaleko ibilgurik, aipatu dolinetatik hurbil dauden eremuak kenduta. Hustubide/dolina horietan iragazten diren uren deskargak iturburuen bidez egiten dira, eta erreketara doazen deskarga lausoen bidez, oro har hego-iparralderantz. Kasu honetan, badirudi eremuaren hego-mendebaldeko mugan dagoen Altxerri dolina izen bereko haitzuloaren ondoan dauden Altxerriko iturburuekin hidraulikoki lotuta dagoela, 2012an egindako azterlan zientifiko baten arabera. Aurkeztu den ingurumen azterketa estrategikoan ere aipatzen da azterlan hori.

Urola Kostako LPPan, “zehaztapen lotesleen” artean, plan partzialaren eremu osoa sartzen da, *“Lurpeko urak babesteko eremua”* baldintzatzaile gainjarriaren barruan. Baldintzatzaile gainjarri horri dagozkion eremuetan, LPPak ezartzen du baliabide hidrikoa kutsa dezaketen jarduerak ezartzea saihestuko dela, eta, hori ezinezkoa bada, ezarpen berriak lurpeko urak babestea bermatuko duten instalazioak izan beharko dituela; ondorioz, proiektu berriek arlo horretan eskumena duen administrazioaren nahitaezko txostena izan beharko dute. Horrela, babes neurri egokiak hartu beharko dira hondakin urak eta/edo euri ur kutsatuak sistema karstiko horretara iristea saihesteko, bai eta akuiferoaren birkarga ez oztopatzeko eta haren baliabide hidrikoak gehiegi ez ustiatzeko ere.

- f) **Interes geologikoa eta geomorfologikoa duten guneak.** Urola Kostako LPPak Ibarrola Errekako dolinek osatzen duten interes geologiko-geomorfologikoko gunea identifikatzen du eremuaren mendebaldean eta hegoaldean. Jariatze urek mota horretako morfologiak aprobetxatzen dituzte, hustubide gisa, infiltratzeko eta zuzenean kargatzen dituzten maila freatikotara iristeko; beraz, gune horretan, akuiferoen kutsadurarekiko kalteberatasuna handia izaten da. Urola Kostako LPParen araudian, gune mota horietan esku hartze antropikoa mugatzea proposatzen da, eta, hala badagokio, gune horiek modu jasangarrian aprobetxatzea, erabilitako baliabidea berritzen dela bermatuz.
- g) **Kultura ondarea.** Eremuaren barrutian, Orioko Gaina I kanpamentua dago, ondare interesa duena. Gainera, handik hurbil Altxerriko haitzuloa dago, izaera nazionalen monumentu historiko-artistikoak izendatzeko uztailaren 17ko 265/1984 Dekretuaren bidez monumentu historiko-artistiko nazional deklaratu zena (1984/08/04ko 132. EHAA). Bi elementu horiek ingurumen dokumentu estrategikoan aipatu beharko dira. Horrez gain, Altxerriko haitzuloari dagokionez, haren ondare garrantzia eta akuiferoaren eta plan partzialaren eremuan dagoen Altxerriko hustubidetik sartzen diren uren arteko lotura kontuan hartuta, beharrezkoak diren babes eta zuzenketa neurriak hartu beharko dira, plan partzialaren eremutik datozen euri urek eta hondakin urek haitzuloaren parametro mikroklimatiko, atmosferiko eta mikrobiologikoetan aldaketarik egin ez dezaten eta, ondorioz, labar pinturetan eraginik izan ez dezaten.
- h) **Arriskuak.** Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 31.1 b) artikularekin bat etorritik, udalerriko arrisku naturalen mapa bat sartuko da ingurumen azterketa estrategikoan. Era berean, ingurumen azterketa estrategikoak neurri zuzentzaileak ezarriko ditu dauden arriskuak murrizteko edo ez handitzeko, eta proposatutako plangintzak ingurumen arrisku horiek kontuan hartu beharko ditu erabilerak eta jarduerak arautzeko. Hauek dira hautemandako arrisku nagusiak:
- *Kutsatuta egon daitezkeen lurzorurak.* Plan partzialaren eremuaren zati bat zabortege zahar baten gainean dago, eta kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen katalogoan dago, 20016-00008 kodearekin. Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean ezarritako lurzoruen kalitatearen arloko adierazpen prozedura gauzatu beharko da.
 - *Baso sutearen arriskua.* Jarduketaren xede den eremuan eta ingurune hurbilean, arrisku baxu, altu eta oso altu gisa sailkatutako eremuak daude. Bai plangintzan, bai lanak egiteko

fasean, kontuan hartu beharko da arrisku hori, eta neurri egokiak hartu beharko dira arriskua saihesteko eta ez handitzeko.

6. INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAREN EDUKIA ETA IRISMENA

Ingurumen azterketa estrategikoan aztertzen den eremu geografikoak nahikoa izan behar du planean aurreikusitako jarduketek sortutako eragin guztiak kontuan hartzeko. Oro har, Zudugarai 22 HJE eremura bakarrik mugatzen den arren, zenbait alderdiren kasuan beharrezkoa da azterketa hori plan partzialekoak baino askoz ere eremu zabalagoetara zabaltzea, inpaktuen ebaluazio egokia egiteko eta babes eta zuzenketa neurriak behar bezala diseinatzeko. Besteak beste, honako hauek aipa daitezke: hidrogeologia, paisaia, azpiegitura berdea, kultura ondarea, etab.

Era berean, ingurumen azterketa estrategikoa plan partzialaren dokumentu gisa agertu behar da hura arautzen duten ordenantzen 4. artikuluan, eta nahitaez bete beharreko izaera arauemailea eman behar zaie babes, zuzenketa eta konpentsazio neurriei, bai eta azterlan horren zaintza planari ere.

Edukiari dagokionez, kontuan hartuta Aiako Udalak Zudugarai 22 HJEaren plan partzialaren irismen dokumentua egiteko bidalitako dokumentazioak duela gutxi egindako ingurumen azterketa estrategiko bat jasotzen duela –2024ko urrikoa–, hurrengo apartatueta osatu edo hobetu beharreko alderdiak baino ez dira zehaztuko.

1. **Eragin nabarmenak jasan ditzaketen eremuen ingurumen karakterizazioa eta planaren indarraldian espero den bilakaera, klima aldaketa kontuan hartuta.**

•

Ingurumen azterketa estrategikoaren apartatu horren edukiari dagokionez, alderdi hauek hobetu beharko dira:

- **Azterketa eremua.** Apartatu honen sarreran adierazi den bezala, idazketa taldeak planteatu beharko du bidalitako ingurumen azterketa estrategikoan erabili den azterketa eremua nahikoa den ala ez aztertu behar diren ingurumen aldagai guztietarako, eta hautatu dena egokia dela justifikatu beharko du, egon diren eta gaur egun dauden jarduera ekonomikoek sortu dituzten inpaktuak baloratzeko, bai eta plan partzialetik sortuko den industrialde berria abian jartzeak ekar ditzakeenak ere.

• **Aztertu beharreko ingurumen aldagaiak:**

- *Plan partzialaren eremuaren eta haren ingurunearen egungo egoera.* URAk kontsultei emandako erantzuna ikusita, badirudi agregakinak birziklatu eta aprobetxatzen dituen enpresaren (Comercial Urratz SL) hondakin uren kudeaketak oraindik ere nahi ez diren inpaktuak sortzen dituela oso eremu sentikor batean. Gauzak horrela, eta eremua modu eraginkor eta osoan leheneratzeko beharrari lotuta, arretaz aztertu beharko da plan partzialaren eremuaren eta haren ingurune hurbilaren egungo egoera, bai eta enpresen funtzionamenduak eragindako inpaktu negatiboak ere, bai egungoak, bai denboran metatutakoak (airearen kutsadura, hondakin uren isurketa, hondakinen kudeaketa desegokia, lurpeko baliabide hidrikoen erauzketa eta kutsadura, etab.), eremuan



ingurumen kalitate ona bermatzeko beharrezkoak diren babes eta zuzenketa neurriak diseinatzeko.

- *Hidrogeologia*. Eragindako ingurumen aldagaien sentsibiltatea eta garrantzia kontuan hartuta, aurkeztu den ingurumen azterketa estrategikoan jasotako analisi hidrogeologikoa ez da nahikoa inondik ere. Berariazko azterlan bat enkargatu beharko zaio aholkularitza enpresa espezializatu bati, Altzerriko sistema karstikoaren funtzionamendua sakon ezagutu ahal izateko eta, babes eta zuzenketa neurri egokiak diseinatzeko, eremu horretan jardura ekonomikoaren garapenari eutsi nahi bazaio, jardura horiek ez diotela inola ere eragingo ziurtatzeko.
- *Kultura ondarea*. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak aipatu dituen ondare intereseko elementuen kokalekua eta ezaugarriak adieraziko dira.
- *Altzerriko sistema karstikoari lotutako fauna hipogea*. Azterketa bibliografiko bat egingo da intereseko ekosistema horretako faunari eta egungo egoerari buruzko informazio zientifiko eguneratuena (irismen dokumentu honen 5. apartatuan aipatutakoaren ondorengoa) biltzeko.
- *Bidezidorrak eta bideak*. Industrialdeak eragin diezaiekeen uneko bideak aurreikusiko dira, haien funtzionaltasuna mantentzen dela ziurtatzeko.
- *Lurzoruen harrera ahalmenaren azterketa, planean jasotako aurreikuspenetarako*. Azterketa hori 105/2008 Dekretuaren 31.1 artikulua betez egingo da, honako alderdi hauek hartuta, besteak beste:
 - ✓ Errepideen administrazio eskudunaren txostena, planean jasotako aurreikuspenek izan dezaketen eraginari buruzkoa.
 - ✓ Administrazio hidraulikoak jabari publiko hidraulikoaren babesari buruz egiten duen informazioa.
 - ✓ Inguruko hornidura eta saneamendua kudeatzen duen erakundearen, hau da, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren adostasun txostena, aurreikusten diren eskaerak betetzeko baliabide hidriko nahikoak daudela ziurtatzen duena. Era berean, azkenean planteatzen den hondakin urak kudeatzeko proposamenaren egokitasuna ere ziurtatu beharko du.

2. Teknikoki arrazoizkoak diren aukeren ingurumen azterketa. Hartutako irtenbidearen justifikazioa.

Aurreko puntuan ezarritakoaren arabera ingurumen inbentarioa aztertzean lortutako datuak abiapuntu hartuta, berriro diseinatuko dira eremuaren antolamendu posibleak; horietako bakoitzak plan partzialaren eragin eremuan kokatutako ingurumen aldagaietan duen inpaktua baloratuko da, eta planaren helburuei eta, bereziki, ingurumen helburuei zer neurritan erantzungo dieten zehaztuko da. Era berean, balorazio hori egiteko erabili den metodologia azalduko da, eta proposatu diren aukeren ezaugarriak jasotzen dituen dokumentazio kartografikoa erantsiko da.

Antolamendu aukera berri horien planteamenduan, bi gidalerro hauek ere hartu beharko dira kontuan:

- **Hormigones Azkuneraren jardueraren kokalekua**. O.4-2 antolamendu planaren arabera, Hormigones Azkune 3.2 partzelan kokatuko da, baina 3. partzelaren hirigintza fitxan, ordenantza arautzaileen barruan, ez da agertzen partzela hori jardura zehatz horri esleitu zaionik. Bestalde, ez dira definitzen etorkizuneko industrialdean jarduerak izan ditzakeen ezaugarriak, ez eta jardura horren handitze posible baten dimentsioak ere. Nolanahi ere, eta

jarduera horrek ingurunean duen eragin handia kontuan hartuta, jarduera hori plan partzialaren eremuaren barruan kokatzeko aukerak aztertu beharko dira, ingurumen aldagaian eta, bereziki, Altxerriko sistema karstikoan dituen ondorioak ahalik eta gehien murrizteko. Horretarako, komenigarria litzateke, aldeztu aurretik, enpresaren egungo eta etorkizuneko beharrei erantzuteko beharrezkotzat jotzen den azalera zehaztea, bai eta jarduera horretako prozesuetako urei eman nahi zaizkien tratamendua eta erabilerak definitzea ere. Azterketa horretan kontuan hartu beharko da, halaber, URAk aurretiazko kontsultei emandako erantzunaren ondorioen arabera, printzipioz, 2. partzela (iparraldeko eta hegoaldeko hustubideen artean dagoena) eraldatzeko esku hartzea mugatu egin beharko dela egungo erabileren ondorioz dagoeneko urbanizatuta eta narriatuta dagoen azalerara, hau da, ezin izango da egin lurzoru naturala eraldatzen duen esku hartzerik GI-2631 errepidearen eta Sorazura eta Zarautzera sartzeko bidearen arteko espazioan.

- **Industrialde berriko hondakin uren kudeaketa eta arazketa.** Plan partzialean industrialdeko berariazko araztegi autonomo baten bidez kudeatzea aukeratzen dela dirudien arren, plan hidrologikoaren 52. artikuluan eta URAk aurretiazko kontsultei emandako erantzunaren ondorioetan ezarritakoa ikusita, aukera hori alderatu beharko da lehendik dagoen saneamendu sistemaren batekin (Ubegun industrialdean dagoena, arrantza portutik datorren linea, Zarauzko saneamenduaren bajako sareren bat, etab.) konektatzeko aukerarekin.

Azkenik, amaieran hartzen den antolamendu diseinua justifikatuko da, kontuan hartuta ingurumen kalitate globalarekiko eta lurralde antolamenduarekiko duen lotura eta doikuntza maila (arau subsidiarioen berrikuspene, LPSak, etab.) eta harrera ahalmena, bai eta txosten honen 4. eta 5. apartatuetan ezarritako ingurumen jasangarritasuneko eta babeseko irizpide eta helburu orokorrekiko koherentzia ere. Amaieran hautatzen den aukera ez bada ingurumen balorazio onena zuena, hautaketa horren arrazoiak ere azaldu beharko dira.

3. Aiako Zudugarai 22 HJ Earen plan partzialeko zehaztapen eta jarduketek ingurumenean sortzen dituzten ondorio esanguratsuak identifikatzea eta baloratzea.

Bidali den ingurumen azterketa estrategikoan jasotako inpaktuen balorazioa ez da behar bezain zorrotza, eta ez du inpaktuen balorazio egokia egiten; beraz, berrikusi egin beharko da, gorago azaldu den aukeren azterketatik eta ingurumen karakterizazio berritik eratortzen den antolamendu berria kontuan hartuta.

Balorazioaren berrikuspen horretan, besteak beste, alderdi hauen gaineko eragina aztertu beharko da:

- Tokiko landaredia (hariztia, baso mistoa).
- Arau subsidiarioen berrikuspenean definitutako tokiko korridore ekologikoaren funtzionaltasuna eta Gipuzkoako Foru Aldundiak definitutako azpiegitura berdea.
- Inguruko hidrogeologia eta Altxerriko sistema karstikoa.
- Kultura ondarea.
- Paisaia. Kontuan hartuko da bai plan partzialetik hurbil dagoen ingurunea, bai inguruko udalerrietatik (Zarautz, Orrio eta Aiako herrigunea) duen ikusgarritasuna.
- Arrisku naturalak (kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak eta baso suteak).

- Kalitate akustikoa eta atmosferikoa plan partzialaren eremuan eta inguruetan dauden eraikinetan.
- Industriadetik eta industrialdera mugitzea, eta horrek inguruko errepide sarean eta bideetan izan dezakeen eragina.
- Ura eta energia bezalako baliabideen kontsumoa, hondakinen sorrera eta hondakin uren eta euri ur kutsatuen isurketa.

Inpaktuak baloratuko dira, bai obra fasean, bai ustiapen fasean.

Hauteman diren inpaktuen garrantzia zehazteko, ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen III. eranskinean ezarritakoa beteko da, eta Ingurumen Administrazioaren 10/2021 Legearen II.F eranskinean ezarritakoa ere.

Identifikatu den inpaktu bakoitzaren magnitudea eta intentsitatea karakterizatu eta baloratu beharko dira, ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen VI. eranskinaren 8. apartatuan adierazitako terminologiaren arabera. Horretarako, aldezturik inpaktu adierazleak definituko dira (adierazgarriak, garrantzitsuak, baztertzaileak, kuantifikagarriak eta erraz identifikatzekoak), eragina behar bezala deskribatzen dutenak, bai eta inpaktuari dagokionez onar daitezkeen gutxieneko mugak ezartzen dituzten ingurumen kalitateko helburuak ere, indarrean dagoen legeria eta kasu bakoitzean eskudunak diren organoen jarraibideak erreferentziazat hartuta.

Azkenik, alderdiren baten inpaktuen ebaluazioa prozesuko ondorengo fase baterako uztea erabakitzen bada, egokiagozat jotzen delako, erabaki hori arrazoitu beharko da.

4. Ingurumenaren arloko prebentzio, zuzenketa eta integrazio neurriak.

Ingurumen azterketa estrategikoak neurriak zehaztuko ditu plan partzialean aurreikusitako jarduketek ingurumenean eragin ditzaketen inpaktuak prebenitzeko, murrizteko eta, ahal den neurrian, arintzeko, bai obra faserako, bai ustiapen faserako.

Era berean, plan partzialean proposatutako antolamenduaren azken onarpena gorabehera, irismen dokumentu honen 1. azpiapartatuan eskatzen den *plan partzialaren eremuaren eta haren ingurunearen egungo egoeraren azterketan* oinarrituta, ezinbestekotzat eta atzeraezintzat jotzen da neurriak diseinatzea eremu horretan garatu dituzten edo garatzen dituzten jardueren funtzionamenduaren ondorioz sortu diren eta gaur egun ere gertatzen diren inpaktuak konpontzeko eta/edo ezabatzeko.

Bestalde, bidali den ingurumen azterketa estrategikoan proposatutako neurriak aztertu ondoren, badirudi neurri batzuk ez datozela bat plan partzial honek sortu ditzakeen inpaktuekin –adibidez, faunaren artean lepituzulia aipatzen da eta erreketako landaredi autoktonoa berreskuratzea proposatzen da, baina ingurunean ez dago ia azaleko ur ibilgurik–. Beraz, ingurumen azterketa estrategikoan jasotako proposamena berrikusi beharko da, orokortasunetatik harago joan eta plan partzial honen inpaktuen berezitasunetara egokituko diren babes eta zuzenketa neurriak diseinatzeko.

Ingurumen azterketa estrategikoan sartu beharreko neurrien artean, honako hauek daude, besteak beste:

- Eraikin berrien kokalekua eta diseinua, paisaia duten eragina ahalik eta txikiena izan dadin.
- Plan partzialaren eremuan baimendutako industria erabileren artean definitzea, dagozkien arau erregulatzailen arabera, beren ezaugarriengatik eta funtzionamenduagatik eremuko



hidrogeologian eta hari lotutako balioetan (kultura ondarea eta fauna troglomena eta troglobioa) inpaktu kaltegarriak sortzeko probabilitate txikiak dutenak.

- Ingurumen adierazpen estrategiko honen 1. apartatuaren arabera plan partzialaren ingurumen karakterizazioaren parte izan behar duen azterketa hidrogeologikoa, bere prebentzio neurrien artean, Altxerriko hustubidea babesteko perimetro bat definitu beharko du, isurketarik gerta ez dadin, eta, horrela, Altxerriko akuifero karstikoaren funtzionamenduan eta uren kalitatean eta lurpeko ekosisteman inpakturik izan ez dadin. Babes perimetro horretan, lurzoru naturala eraldatzen duen esku hartze oro saihestuko da, eta plan partzialaren antolamenduan txertatuko da. Halaber, kontuan hartuko da ere obren fasean, akuiferoan gerta daitezkeen inpaktu negatiboak ahalik eta gehien murrizteko.
- Sortzen diren hondakin ur eta euri ur kutsatuak arazteko sistemak ezartzea, Altxerriko sistema karstikoari eragitea saihesteko.
- Plan partzialeko eremuen urbanizazioan, jariatze ur kutsaturik edo prozesuetako ur kutsaturik ez duten azaleretan, behar-beharrezkoa den tokietan bakarrik jarriko da zoladura iragazgaitza. Era berean, drainatze jasangarriko hiri sistemak (DJHSak) sartzeko aukera aztertzea, eta hiri garapenaren inpaktua –karga kutsatzailearen aldetik eta gehieneko emariak murriztearen aldetik– jatorrian murriztuko duten DJHSen ebaluazio tekniko eta ekonomikoa txertatzea.
 - Industrialdetik eta industrialdera joateko mugikortasun jasangarria errazteko neurriak (garraio publikoa, etab.).
 - Industrialdea urbanizatzeko eta eraikitze irizpideak ezartzea, energia efizientzia, energia berrizgarriak eta baliabide naturalen aurrezte (ura, esaterako) sustatzeko.
 - Zudugarai 22 HJE eremuaren mugakide diren eraikinen gaineko ustiapen faseko inpaktu akustikoaren azterketa egitea, II. faserako azterlan akustikoaren ondorioetan ezartzen den moduan (*Kanpoko zarataren azterketa etorkizuneko egoeran*). Azterketa hori banakakoa izango da ezartzen den etorkizuneko jardura bakoitzeko, eta sektore osorako bat ere egingo da.
 - Paisaia leheneratzeko eta integratzeko azterlan bat idaztea, EAEko lurralde antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gaineko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuaren 7. artikuluan aurreikusitako edukiekin, industrialdeak paisaian duen inpaktua ahalik eta gehien murrizteko eta eremu urbanizatuen eta urbanizatu gabeen arteko trantsizio egokia errazteko. Azterlan hori zehazteko, kontuan hartuko dira *“Zarautz-Azpeitia Eremu Funtzionaleko Paisaiaren Katalogoan”* zehaztutako jarduketak irizpideak. Haren jarduketak eremua ez da soilik plan partzialaren barruan dagoen eremua izango, baizik eta orain arte garatutako industria jardueraren ondorioz narriadura jasan duten eremu mugakideak ere bai (ikus, adibidez, 2016-000008 kodearekin katalogatutako kokalekuan sartuta dauden eta kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak). Gainera, gaur egun eremuan dagoen intereseko ahalik eta landare gehien integratuko du (tokiko zuhaitz masak), adibidez, espazio libre izendatuta; hori, era berean, onuragarria izango da azpiegitura berdearen funtzionaltasunerako eta arau subsidiarioetan definitutako korridore ekologiko berderako. Azterlanak aurrekontu bat, hura finantzatzeko moduaren definizio bat eta hura gauzatzeko denbora plangintza bat izan beharko ditu.

Azkenik, lurraldean hartu daitezkeen babes, zuzenketa eta konpentsazio neurriak islatzen dituzten planoak txertatu beharko dira, hala nola paisaia leheneratzeko eta integratzeko jarduketak edo Altxerriko hustubidea babesteko eremu periferikoa.

5. Planaren ingurumen eraginak zaintzeko programa.

Zaintza planaren helburua izango da ingurumen kalitatea zaintzen dela bermatzea, plan partzialean proposatzen diren jarduketei dagokionez, bai eta ingurumen ebaluazio estrategikoaren azterketan eta irismen dokumentu honetan proposatutako babes, zuzenketa eta konpentsazio neurriak betetzen direla bermatzea ere.

Bidali den ingurumen ebaluazio estrategikoaren azterketan ageri den zaintza planaren proposamenari dagokionez, aurreko azpiapartatuan neurri babesle eta zuzentzaileei buruz azaldu den bezala, badirudi kontroletako zenbait ez direla aplikagarriak plan honi dagozkion ingurumen aldagaietarako edo neurri zuzentzaileetarako, adibidez, lbaieder ibaiko uren kalitatearen kontrola; beraz, proposamena berrikusi egin beharko da, erreferentzia oker horiek ezabatzeko.

Gainera, irismen dokumentu honen ondorioz bidali den ingurumen ebaluazio estrategikoaren azterketan txertatu beharko diren aldaketak ikusita, aurkeztutako gainbegiratze programaren proposamena ere berrikusiko da, inpaktu berrien eta babes, zuzenketa eta konpentsazio neurri berrien aurrean beharrezkoak diren kontrolak sartzeko.

Zaintza programaren definizioak, gainera, honako alderdi hauek jasoko ditu:

- Ingurumen jarraipenaz arduratzen diren pertsonak eta/edo erakundeak.
- Egin beharreko txostenen edukia eta maiztasuna.
- Martxan jartzeko aurrekontua, bai obra faserako, bai ustiapen faserako eta/edo obren berme aldirako.

6. Laburpen ez teknikoa.

Ingurumen azterketa estrategikoan emandako informazioaren laburpen ez tekniko bat idatzi beharko da, informazio zehatzarekin eta jendeak oro har ulertzeko modukoa.

Laburpen horretan, gutxienez, honako hauek jasoko dira: Aiako Zudugarai 22 HJEaren plan partzialarekin lortu nahi diren helburu orokorrak eta ingurumen helburuak, aztertu diren aukerak, horietako bakoitzak ingurumenean dituen ondorioen laburpena, eta azkenean hautatutako irtenbidea edo irtenbideak hautatzeko arrazoiak.

Laburpena osatzeko, diseinatu diren neurri zuzentzaileen azalpena eta parte hartze publiko eta administratiboaren prozesuaren ondorioak jasoko dira.

Era berean, alderdi azpimarragarrien dokumentazio grafikoa erantsiko da.

7. Aukeren eta prebentzio, zuzenketa eta konpentsazio neurrien bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena.

Aukeren azterketari gutxi gorabeherako analisi ekonomiko bat erantsiko zaio, kostu-onuraren analisia eta analisi ekonomiko-finantzarioa barne dituen, eta, ahal den neurrian, ingurumen eta gizarte izaerako kanpo kostuen azterketa ere sartuko da.

Era berean, apartatu horretan jasoko da ere Aiako Zudugarai 22 HJEaren plan partziala aplikatzeak eragin ditzakeen ondorio negatiboak prebenitzeko, murrizteko edo arintzeko neurrien kostuaren zenbatespena eta/edo aurrekontu xehatua, plan horretatik eratorritako ingurumen kostuak eta neurri horiek finantzatzeko iturriak kontuan hartu direla bermatzeko. Horrez gain, Aiako udal aurrekontuen kargura ordainduko diren neurriak eta, hala badagokio, hirigintza proiektuen edo jarduketan sustatzaileek beren gain hartu beharko dituztenak bereiziko dira.

INFORMAZIO ETA KONTSULTA MODALITATEAK

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. eta 22. artikuluetan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 73. artikuluan ezarritakoa betez, Aiako Udalak, Aiako Zudugarai 22 HJEaren plan partziala onartzeko prozedura substantiboan aurreikusitako izapideen barruan, honako jarduketa hauek egingo ditu:

a) Eragindako administrazio publikoei eta herritar interesdunei kontsulta egitea planaren edo programaren aurretiazko bertsioari eta ingurumen azterketa estrategikoari buruz.

b) Planaren edo programaren aurretiazko bertsioa eta ingurumen azterketa estrategikoa jendaurrean jartzea, iragarkia aldizkari ofizialean argitaratuz, eta gutxienez 45 egun ematea hura aztertu eta oharrak egiteko.

Aurreko ondorioetarako, eragindako administrazio publikotzat eta herritar interesduntzat hartuko dira irismen dokumentu hau idazteko Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiak kontsultatu dituen administrazioak, erakundeak eta pertsonak, bai eta plana izapidetzeko prozesuan Udalak identifikatzen dituen erakunde eta interesdun gehigarriak ere (eragindako partzelen jabeak, auzokoen elkarteak, etab.).

INGURUMEN ADIERAZPEN ESTRATEGIKOAREN ESKAERA ETA JENDAURREKO INFORMAZIOAREN ALDIAREN ONDOREN PLANEAN EGIN LITEZKEEN ALDAKETAK

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24. eta 25. artikuluetan ezarritakoa betez, plana edo programa behin betiko onartu aurretik, Aiako Udalak ingurumen adierazpen estrategikoa egiteko eskatuko dio Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza Nagusi honi. Eskaerarekin batera, ingurumen ebaluazio estrategikoaren espediente osoa aurkeztu beharko da, honako hauek barne dituela:

- Aiako Zudugarai 22 HJEaren plan partzialaren hirigintza dokumentuak.
- Ingurumen azterketa estrategikoa.
- Inpaktu akustikoaren azterketa.
- Azterketa hidrogeologikoa.
- Dagokion araudi sektorialaren arabera nahitaezkoak diren txostenen kopia eta kontsulten eta jendaurreko informazioaren izapideetan egindako alegazioak.
- Laburpen dokumentu bat, non Aiako Udalak azalduko baitu nola integratu diren planaren azken proposamenean ingurumen alderdiak, ingurumen azterketa estrategikoa eta hura irismen dokumentura egokitzeari buruzkoa eta egindako kontsulten emaitzak, emaitza horiek nola hartu diren kontuan azaltzeaz gain.

Bestalde, plana izapidetzen den bitartean eta kontsulten eta jendaurreko informazioaren izapidea egin ondoren ingurumenean ondorio esanguratsuak izan ditzaketen eta ebaluatu ez diren aldaketak erabakitzen badira eta, edozein kasutan ere, 21/2013 Legearen 72. artikuluko kasuren batean badaude, Udalak Zuzendaritza honi jakinarazi beharko dizkiola aldaketa horiek eta behar den dokumentazioa bidali beharko duela, planaren edo programaren alderdi aldatuak ebaluatzeko.



Donostia, 2025eko abuztuaren 4ean.

Ingurumen Administrazioaren zuzendari nagusia